

KONPROMISOA**Egonline¹****Helburuak:**

Egin dezagun ikus-entzunezko bat, programan zehar ikasitako guztia hartara bilduz. Erakuts dezagun badugula konpromisoa teknologia berriak zuzen eta arduraz erabiltzeko. Sormenetik tiraka egin dezagun lan bat, gisaberekoan artean teknologia berriak arduraz nola erabili erakusteko.

Denbora: 90 min**Nola egin:**

Ikasleak taldeka banatu, eta, lehen-lehenik, esan talde bakoitzak istorio bat asmatu behar duela: sarea oker erabili da, eta horrek egoera gaizto bat sortu du; hori erakutsi behar du istorioak.

Asmatu dute istorioa; orain, garatu egin behar dute, Pixton programa erabiliz (komikiak egiteko online programa).

Istorioek, edozein arazo islatzen dutelarik ere, baldintza hauek behintzat bete behar dituzte:

- 1- Sareak erabiliz norbaitek gauza okerren bat egiten du, edo beste norbaitek egindako okerkeriaren biktima da.
- 2- Arazoa larriagotu egiten da.
- 3- Biktimak laguntza eskatzen du.
- 4- Guztien artean arazoaren konponbidea bilatzen dute.
- 5- Teknologia berrien inguruan mezu positiboa behar dugu, arduraz erabiltzeko deia.

JARDUERA ANALIZATZEKO JARRAIBIDEAK

Ikasleek egindako komiki guztiak proiektatu, eta azken gogoeta egin.

Erraz asmatu al duzue istorioa?

Egindako lanak, zuen ustez, beste batzuentzat ere baliagarriak izan al daitezke segurtasun handiagoz nabigatzeko?

Ikasi al duzue programarekin?

Uste duzue hemendik aurrera teknologia berrietara beste modu batera hurbilduko zaretela?

Nola?

Zuen inguruan antza hartzen baldin baduzue norbait jazartzen ari direla, jarrera bera izango duzue?

I. eranskina: Pixton programa

II. eranskina: Testuinguru teorikoa eta ondorioak

¹ Egonline Gida pedagogiko hau da teknologia berrietan nola hezi lantzeko. Egokitua